


## "Hitz lau" liburua kalean

Euskal Editoreen Elkarteak "Hitz lau" liburua argitaratu du. Bertan, Anjel Lertxundi, Koldo Izagirre, Xabier Leite eta Ramon Saizarbitoria idazleek 1993ko azarotik 1994ko uztaila bitartean Euskaldunon Egunkariako "Hitz lau" sailean argitaratutako artikuloak bildu dituzte. Liburua 12 eurotan dago salgai. "Hitz lau" artikulo bildumaren salmentarekin eskuratutako diru guztia *Euskaldunon Egunkaria*-ko langileen alde bideratuko du Euskal Editoreen Elkarteak. Hizkuntza aberatsez, ironia zorrotzez eta modu oso literarioan idatzitako artikuloak dira eta oraindik ere puri-purrian dauden gaiak dituzte oinarri.



### "Berria" diruaren %77 jortzea Donostian

*Berria* egunkaria abiarazi duen taldeak Donostiako aurreikusitako diruaren %77 bildu du. Donostian, akzio salmenta bidez, 295.277 euro biltzea da helburua. Honenbestez, 67.227 euro falta dira helburua lortzeko. Udaran Egunkariaren aldeko batzorde batzuk desegingo dira eta egitura berrantolatuko da. Hilaren 15ean, 20.00etan, Parte Zaharreko Arrano Beltzan egitekoa den bileran zehaztuko dira aldaketak.

### "De Re Publika edo Politikaz"

• ELKAR • Piarres Xarriton


Zizeron eta Platonen oihartzun klasikoak nabari daitezke Piarres Xarriton euskaltzainaren saiakeran. Gaurkotasun handiko gaiak gogoetagai dira bertan, hala nola, estatu eta nazioen arteko harreman gatazkatsua, herri eskubideen eta giza eskubideen arteko ika-mikak edo bortizkeriaren eta politikaren auzi samina. Xarritonek Moro, Spinoza eta Frantzisko Viktoriakoaren liburuak euskaratu ditu, besteak beste.



### "Bosniara nahi"

• AIZKORRI • Juan Kruz Igerabide • 100 orrialde

Serbiarrak hurbil daudela jakin eta gutxira, seme-alabekin Bosniatik ihes egiten saiatuko da familia bat. Ama, semea eta alaba Bartzelonara iritsiko diren arren, aitak ez du ihes egitea lortuko. Nezir semea Bosniara itzuliko da aitaren bila. Filologoa da Juan Kruz Igerabide, eta irakaskuntzan dihardu. Poesiaz gain, gaztetxoei zuzendutako hainbat liburu ere idatzi ditu.



### "Katearen begiak"

• TXALAPARTA • Iñaki Petxarroman

Euskal Herriko garai ezberdinetako zazpi pertsonaia historiko aukeratu ditu Iñaki Petxarroman idazleak eleberrin honetan, gure herriak nozitzen duen gatazkaren izaera islatzeko. Kronika historikoa eta literatura, errealitatea eta fikzioa, uztartu nahi izan ditu egileak bertan. Iñaki Petxarroman *Berria* egunkariko kazetaria da lanbidez, eta "Nafarroa, iragana eta geroa" liburuaren egile ere bada.



### "Dinbi-Danba"

• GAZTELUPEKO HOTSAK • Dinbi-Danba • 10 abesti

Dinbi-Danba musika talde donostiarrak lehen diskoa dakarkigu. Joserra eta Imanol Lorenzok, Roge Garciak eta Miguel Alonsok osatzen dute taldea. Disko honetan, gainera, Aintzane Lorenzoren piano doinuak eta Erramun Oiarzabalen saxoa ere entzun daitezke. Donostian sortu zen Dinbi-Danba taldea duela hiru bat urte, eta 70-80ko hamarkadetako jazz-rock estiloaren eragin handia du bere musikak.

